

## LEHEN ALDEA

### IZEN ALA EZ IZEN

Igandez jaioa ez nauzue baina  
alfer zalea naiz, zertako engaina  
lana ez dut oso maite  
legez izan arren Dominique/Domingo  
hori ni naizenik ez nuke jakingo  
Txomin esaten didate

Kitarra kaxkar bat eskutan hartuta  
nenbilen garaia dut ia aztuta  
zahartu naizen seinale  
gaur etxea daukat leporaino tresnaz  
ta haiek jotzeko astirik apenas  
ez nago askozaz hobe

Euskadi Irratian goizean goizetik  
bestek hartutako diskoen atzetik  
ibiltzen naiz egunero  
sobratzen zaizkidan ordu apurretan  
kantuak sortzea zaila zait benetan  
nahiz saiatzen naizen bero

Ez da kantarien lana hain ederra  
ni bezala bada behintzat amateurra  
baina zer egingo zaio  
deitzen nautenean saiatuz ahalegin  
jendea nerekin zapuztu ez dadin  
hemen nabil saioz saio

Plazetako lana dugu derrigorra  
nahiz neretzat izan erabat gogorra  
jai baitago hori gabe  
jendeak eskatzen duena eskainiz  
nere zentzu denak horretan ipiniz  
gozo-gozo ta xuabe

Denek dakizue nik zer jotzen dudan  
gustoko ote den ibiltzen naiz dudan  
hori baita printzipala  
Artola naizenez, Hondarribiari  
itsas gizon eta andreei kantari  
aita gidari dudala

Haizea bezala Olaxten gainetik  
batetik bestera ibili naiz beti  
errotu ezinik inon  
lur eta jendea gozoro laztanduz  
malkorikan gabe berriro bananduz  
nahiz maitemindurik egon

Euriaren xarma kale kantoietan  
probatua nago hiri arrotzetan  
hori ezingo dut ahaztu  
ez al dut egingo Txirritaren gisan  
frantsesa Londresen, inglesa Parisan  
ta euskara guztiz nastu

Nola ibaiaren urak itsasora  
bizitza herio amaren altzora  
belar hostoak orbelduz  
Bien bitarteko uneak gozatu  
beste aukerarik ez dela pentsatu  
dugun apurrari helduz

Ez doa debalde amura legatza  
neke handikoa zorion-arrantza  
bildurrak sortzen zaizkigu  
nahiz saiatze hortan betirako ito  
hala nola gure txalupan Txuriko  
ahaleginak merezi du

Ispilurik ez dut nahi ezertarako  
soin gainean badut 40 bat tako  
bajatu zaizkit indarrak  
baina zertan bizi atzera begira  
urterik onenak etorkizun dira  
gora rockero zaharrak

Zoriona txin txin ozen eta txukun  
zoritxarra berriz ttakun eta ttakun  
musikaz ditut emanak  
naizen dena ez da diskotan izango  
ez denik halere, ez nuke esango  
hortxe nauka nahi nazanak

### ITSUNESKA

Denborak hasi baino lenago  
deus ere ezer ez zenean  
musika hunan hire hegada  
ezerezaren huts gainean

Hitzaren jainko izugarriak  
orruz emanik agindua  
hire soinaren adabakiez  
tankeratu hunan mundua

Orruen erruz urraturikan  
mila puskatan desegina...  
gauza orotan gorderik hago  
inon ez haiz ageri baina

Zalapartaren deserri hontan  
itsuneska nahi haut, kuttuna  
hatorkit eta kulunka nazan  
hire baitan, isiltasuna



### IBILTARIARENA

Agur ta banoa  
ni ez bait naiz hemengoa  
ez dut aberririk  
libertatea ezik  
t'aspaldi luzean  
bizi naiz erbestean  
inoren etxean  
arrotzen artean

Agur ta banoa  
ni ez bait naiz hemengoa  
ez dut ekipairik  
neure kitarra baizik  
ta zure itzala  
ipar-orratz bezala  
zama arina da  
amaigabea bidea

Agur ta banoa  
ni ez bait naiz hemengoa  
ez dut helbururik  
ibiltzea besterik  
nekeen gainetik  
ametsaren azpitik  
haizeak naroa  
ez naiz inon inongoa

## AMA ZURIAK NERI

Ama zuriak neri  
parian pasa ta  
ez dit agurrik egin maitia  
burua jira ta

Ama zuriak neri  
ez agur egiteko  
zer palazio dauka maitia  
zuri emateko

Palazio eder bat  
aitzaren gañean  
ez da euririk sartzen maitia  
ari ez dunian  
ez da haizerik sartzen maitia  
ez dabilenian

## SOR LEKUA UTZIZ GEROZ

Sor lekua utziz geroz  
ondikotz hala beharrez  
Jainko ona urrikaldu  
da bethi nere nigarrez  
primaderan hasi orduko  
arbolak estaltzen lorez  
xoritto bat heldu zaut bethi  
nere herritik hegalez

Nere ganat hain urrundik  
ethortzean, unhatua  
arbolarik hurbilena  
du bere pausa lekua  
aldaxka goren gorenean  
horra nun den lokhartua  
luma pean zango bat eta  
hegal pean du burua

Pausa hadi, lo egizak  
xori maitea, bakean  
atzarria ni hire zain  
hemen nauk hire aldean,  
ur xortarekin horra gero  
papurrak leiho gainean  
bainan gero hango berriez  
orhoit hadi atzartzean

Orhoit hadi bai, xoria  
herri maiteko berriez  
nere aitaz, nere amaz  
nigarrez han nik utziez  
mintza hakit aurhidez eta  
mintza lagun on hekiez  
mintza nihor ahantzi gabe  
maite nintuen guziez

## CENTRAL PARK N.Y.C.

Imajina dezaket A  
mugarik gabeko mundu bat imajinatzen  
eta X bat ere imajina dezaket  
A-rengan deabrua imajinatzen  
eta imajina dezaket udazkeneko arratsa  
Central Park-eko xendra orbelsuetan  
beleen garrasiak eta tiro bat Jainkoaren izenean  
Nowhere man, ero bat, idatziko dute egunkariek  
eta bala bat imajina dezaket  
A-ren imajinazioa zulatzen  
eta marrubizko maluten jariora  
Strawberry fields, New York-en  
baina nola imajina John Lennon  
marrubizko zelaietan mututurik, hilotzik.



## BIGARREN ALDEA

### BONETA ETA TXAPELA

Igaran egün batez egin dügü erri;  
Hortaz nahi deiziet eman zerbait berri:  
Parisetik jin zaikü bidajez Phetiri,  
Urthe bakhotx fortuna eginik üdüri.

— Agur, eta zertan hiz, Phetiri gaizua?  
Ene haur-denborako khantüko aizua!  
Igaran dük ordünko denbora gozua,  
Eta hi aberastü, ezepehiz zozua!

— Parisetik horra nük zien ikhustera,  
Han untsa bizi gütü, adixkide Pierra.  
Hiaurrek ikhusten dük egin diat afera,  
Txapela ezarri diat büütik behera.

— Txapela badük bena arhin barnekua:  
Nun ützi dük buneta Uxkal-herrikua?  
Txapel horrek eztereik edertzen kaskua:  
Basta ederra gatik, asto dük astua.

— Eztiat ez axolik laiduen batere!  
Han ezagützen diat hanixko andere!  
Itxürari so-ginez aberats bai ere  
Ezkuntüren ahal nük, ez erran deüs ere.

— Arren, badük ideia hola ezkuntzeko?  
Lagün franko badükek hortan segitzeko,  
Ofizio bat balitz Parisen hartzeko,  
Aberats izan gabe, auher bizitzeko!

— Ez nük ez hi bezala lanian akhitzten;  
Lan anplexagorik dük hirian agitzen.  
Ene alde hasi nük Parisen bizitzen:  
Arrüaren xokhuan oskien argitzen...

— Ofizio ederra oski-argizale:  
Har ezak emaztia ziraje-saltzale.  
Haurrak jinen zaitzie gose-bazkazale:  
Utziren dük Parise ahal bezaiñ zalhe.

Ni ja nahi nük egon buneta kaskuan,  
Ene sor-lekhü maite Uxkal-herrikuan.  
Ihurk e jakin-gabe zer düdan goguan,  
Kobla zunbaiten huntzen süthondo-xokuan.

## ZU ENEA

Nor banakoa etxe bat bada, besteengandik bereizi  
zure adatsen teilatupean, maizter nahi nuke nik bizi

Bizitza golde bortitza denez, kopetan zimur-ildoak  
urteen uzta zilar-malutez, estaltzen ari biloak

Ikustearren daude begien, leiho ilun naiz argiak  
zureak itsu balira ere, neretzat maitagarriak

Sudur-hegian ahoa duzu, hitz ta musuen atari  
bertan etzanik mihin gorria, txakurtxo beti jostari

Ate ondoko intxaur ondoak, atsedena ta geriza  
nektarrez eta eztiz gainezka, zure bularren kaliza

Etxeak zutik iraungo badu, ona behar orubea  
halakoxea zure gerria, lehun ta tolesgabeara

Etxeko kea gorantz doala, zimenduek lurrari muin  
izango al naiz zure zangoen, dantzan esku hartzeko duin!

Etxe aldean soro-larreak, langa-esolez hesia  
zure besoen barrutian naiz, maitasunean hezia

Zu zara bizi naizen etxea, zu zara bizi nauena  
zurea nauzu, zureak ditut, izana eta izena

## TRISTE BIZI NAIZ ETA

Triste bizi naiz eta  
hilko banintz hobe  
badaukat bihotzian  
hainbat atsekabe  
maite bat maitatzen det  
bañan haren jabe  
sekulan izateko  
esperantzik gabe

Bihotz baten lekuan  
milla banituzke  
zuretzako maitia  
izango lirake  
baña milla lekuan  
bat besterik ez det  
hartzazu ba maitia  
bat hau milla bider

Ene maite pollita  
nola zera bizi  
zortzi egun hauetan  
ez zaitut ikusi  
badakit zabiltzala  
nigandik ihesi  
ez didazu ematen  
atsekabe gutxi

## IZARAPEAN

Izar azpian mundua dago  
izarapean zerua  
zure laztanen haize hegoan  
galtzen da nire burua

Errekastoak ur murmurio  
itsaso handiak orru  
zentsun guzien zoramenera  
muxuz-muxu, larruz-larru

Kimuarena ote lorea  
ta fruitua lorearen?  
elkar urtuaz jakin nahi dugu  
ni zu naizen, zu ni zaren

Su gar harroa iraungitzean  
ilintiak gori dirau  
ase ondoko lotan gautzala  
ailedi betirako gau!



## ESKUAL ANAIK

Erdal-itsaso iresle hortan galduak zaizten anaiak  
eskual-eguna baitugu egun, zueri agur nasaiak  
eskual anaiak, altxa burua, bota irrintzin alaiak  
ari zaizkigu oldarka sartzen uhainak eta hedoiak  
bainan Eskualdun atxik gaitzala Eskuara gure mintzaiak

Etxe xokoan elgarri tinko, Eskuarez kantuz aitzea  
ai! zer gozoa, zer bozkario, zer bihotzaren ase  
etxe xokoan kantuz aitzea paregabeko bakea  
sistu-marrumaz ari dadila kanpo beltz hoitan aizea  
guk etxeñoan azkar dauzkagu Eskuara eta Fedea

Mundu guziko eskual-etxetan mintza ta kanta Eskuarez  
aintzinekoen eskual su hura barnean berritz pitz-araz  
Amerikano ala Paristar, orhoit gaur zuen odolaz  
eskual-hitz bero harrokatsuez zuen bihotza denek haz  
denak Eskualdun, eta denak bat, jabe gaitezen geroaz